

# Beste eun-urtebete bat: Dante (1265 - 1321)

AITA ONAINDIA

Gaurkotasun-zalea gara. Gaurkonz jantzi, gaurkez itz egin, gaurkoz idazki. Eta guztioi irau-azo? Oruntzeal! Ona eredu bat: bere garaian orduko gizonak eta gauzak astindu zitun, eta arrekerro, zaplereun urte Joan arruen, orain oraingoa dogu Dante. Iena ta orain mintz belatzetan alkartzen dituan idazle goren tongoa. Gizona sartu sentipenez, azuzta ta situ-ezinetako gozberaz, bardin samarra dogu gizaldietan zein. Arek bere idatz eder guztietan. *Jainkozko Antzerkia*'n batez be, garatuz ta eratuz bere garaia, bere aldia, bere sasoia alparu eban, orduko gizona mamiñez ta azalez —intus er in cute— arrigarriko antz-iduriturik. Dante Florenzia'n sioa zan 1265'an, eta Revana'n il 1321'an.

Florenzia, Arno'ren ur-ertzeta jarrria, erkal edo errepública bat zan Dante'ren egunetan, bere eskuko ta oso eragina. Erkal txiki onek bahan bere barru-izamen beretza, eta orduan be gero ta gelago aldutuaz joian: lenpo aitor-seme, aberats eta leñargiak ondotik etozanen erdimillako mende jausiaz joian. Aldakuntza onek, pentsakera ta eragin onek naikoa istillu sortu eban, erriko artean alderdi bi egifik: baltzak eta zuriak; baltzak edo guelfoak, antxifako aitor-semeen aldekoak, eta gibelindarrak, erdimillako alderdikoak; lenengoak Alemani'ko Nagusia begi onez ikusen eben, bigarrenak Aita Santuaren aldekoak ziran anglo Agintariak eta Aita Santuak garai atan alkarren erabillean atitu-ezinetan.

Dante, naiz-ta odolez guelfoizan, politikaz zurien alderdiko zan. Eta oneik sari aukeratu eben errian ospe andiko kargu ta egikizunak

befetako. Bonifazio VIII'garren Aita Santuak, ango azuziak onez atondou gurarik, 1301'an Florenzia'rak dei egin eutsion Prantxiko errege Karlos'n. Dante'k orduan Errroma'r jaeban; baiña etxeratu zanean. Aita Santuak itz ederrak esan eutsoran arren, bere etxalde guelfotarrak eskutan surkitu eban erriko agintaritzeta ta osoro zuzituta bere etxalde ta ondasunak. Atzerrira egotzi eban, Florenzia'rak blurtzen ba'zan bizirik etxeko ebela esanik. Ogetamasei urte zituan ordun Dante'k. Uriz uribilliz zan urte askotan, szeuki ta nordustas, urte mordoa Paris'en emon ondorean, Ravenna'rak iztuli ta uzken-egunak an igaro ebañan beretarren maitezko abi gozoan.

Erbestaldi ontan etzan nagi egon. Aspertzaile lumeari ekinik, bere garaiai egokioen jazokun txiki ta anadiak izkera gozo ta leunean egokitutuan. Biotz-barruan ba'erabillen kezka, ezin ikusi nurbait idazlearen eta irakurlearen arteko oztasuna; orduan be gaur lez gertatzen, idatzitzen arruen gitxik baiño irakurri ez, ta samingarri izan oi da aibatizerdi bota darioan luma-zalearen. Urretxindorrak ba-ditu entzuleak zugatz artean, baiña ez ba'llitu mingarri litzakio ixiltasun atan alpetrik kanta-bearra. Dante'k au ekarren gogora.

Erdi-aro osoa artzen dabe Asis'ko Prantxiko donek, Akino'tar Tomas deunak eta Dante'k. Dante dogu orduko literatura-pizkundeari asiera emon eta goirafio gaillendu euskuna. Izkuntza zlojan italiar zeruleko izarrak argitsuena izana dogu. Latína zan ordurarte kultura izkuntas, baiña erriak ez ekian latínak, bere-berea zan erritar izkera bal-dana baiño. Au jaso bear zan. Eleizeak gur mundu guztiko izkuntzaz dagian lez; italiar izkuntza, izkelgi askotan banatua, goratu bear nataez, latínaren ordez literatura izkuntza «jator» egiñik. Aberatsak, jakitunak eta eliz-gizonak ekien bakarrik latínez irakurri ta idazten. Dante osteria erdi-millako zale zan eta onein buru-biotzak jantzi ta apaindu nai zituan. Orrela idatzi ta idatzi, italiar izkelgietatzak jantzi ta apaindu nai zituan. Orrela idatzi ta idatzi, italiar izkelgietako itzez eta esaeraz, izkera errez gozoa sortu eban, bere garaitik ona asko aldatu eztana.

Gaztetatik ekarren elerti-sena. Adiskide zintzo, jakitun eta literatura-zaleak zituan ingurumari. Eguzkiak goiz-laiñoak lez, aren lirika lerdetak laster baztertu eban, garai atan ziran olerkari ta idazle onenak. Gazte zala argitara eban *Vita Nuova* —Bizi barria—, itz-lauz ta olerkiz jantxitako liburu zoragarria. Sendi arteko jai batean neskatz bat ezagutu eban bederatzitzen zala; naiz-ta gero Gemma Donati'gaz ezkondu ta onegandik seme-alabik izan zituan arruen, bizi-tzu guztian izan yakon lilluragarri gastez lursin aren iduria. Beatriz (Zorune) Portinari zan gaztea. Onen gizantza osotzen dau biozkor ta antzetsu liburu jori onetan. Ordukoak dira, gainera, *Canzonieri* liburuari argitaratu oi diran 67 amalauko ta abestiak.

Gai zabala erabillen geienez. Etxakon eder Aita Santuak eta Alemani'ko Agintariak batez be, alkaren artean ekarren ezin-aitua: auda, erri-agintarien eta eliz-buruen arteko eztaba. *De monarchia* deritxion liburuaren ondo zigortzen ditu lotsagarrizko alderdikeri biok: ixil-leko burruka, Europa'rri ainbat kalte ektarson eztaba. Ain zailla ete zan indar biak alkarbuztartzea? Bakotxa bere aldetik, zer dala-ta hakean ez bizi? Orduan, baiña, berebiziko indarra artua genduan, toki batuetan gaur be oraindik naikoa mardul agiri yakun landare au. *De vulgari eloquentia* lateraz idatziriko liburuaren Itali'ko izkelgi guztia aztertzen ditu, eta *Convivio* deritxonean Aristoteles'en onbideari buruzko eritxiak errez ta lau eskin-tzen dausku.

Baiña aren libururik eder lorrena *Commedia* —Jainkozko Antzerkia— da. Ontan be, geienez, garai aretan

zan erriko ta kanpoko politika dabil darda gaixean. Dante arteza zan, zuzen-zalea, jauntxokeren amorratus, goikoaren ustelketak eta gaixarakoen grifa nabarmenak iguin emoten eutsena. Bere lan garai-garaia auxe da; ementxe dagerkigu Itali'ko izkuntzaren aita punterengoa; berrogetamar izkuntzatara beintzat itzulia izan dan bertso lan bikain onek eroan eban mugaz andikaldeetarañio bere izearen ospe dirdaitsua. Amar urte egia ebazan berau idazten, Ravena'n bizi zila geienbat idatzirik. Iru liburu —Su-leza, Garbitegi ta Atsegintoki— ta eun kantutan berezi eban lan osoa, amaiaka silabadun lrukoetan onduta.

Ibillaldi bat asmatu eban beste mundura. Su-leza ta Garbitegi zebar Bergili doroa lagun. Atsegintoki zebar Zorune; a bata adimen-eredu da, bestea siñismen-iduri. Oso maite eban Birgili *Unci-kantak*, *Alor-kantak* eta *Enearena* idatzi zitulako, eta onek laguntzen dautso ai-enez, intziriz eta garraz beteriko impernuan zebar. Ibai-errekak, arkaitzak, itzaldegia andi ta eremu zabalak eta ur bat sutan dagoz toki izugarrionetan. Pekatariak, eta batez be bere garaiko gizon zuzen-ekak, sartzen ditu berton oñizate bizitan. *Garbitegia* ezta orren ikarokorra, baiña onek be ba-dau bere alderdi mingotsa. Garbitegitik urten-ala, Zorune'k berak lagunduko dautso Atsegintokiko edertasunean zebar. Irutasun deun-deunaren zoriona sentitzeraino eroanik. Liburu onen orrialde guztia hiotz-ikara izugarrria daragisku, aibat gertari ta jazokunez apainduta.

Berrogetamasei urteko il zan Dante. *Antzerkia* amaituta laster Bere lanak olako entzutea jaritxiko ebanik, ez eban uste. Baiña bertatik asi ziran Itali'ko ikastetxe nagusietan liburu au azaltzen; Eleizeak ontzartu ebañan aren eritxi guztia. Dante'k, izan be, hiotz-zirrada gozoa ezzari oibar eban irakurleetan, baita geroko bizitzan pentsa-erazo be: arimak, eriotz astean, tokiren batera doaz. Nola? Or iru toki. Iruretatik bat, arimeak berak egin bear dauer aukeratzea. Bidea? Or argi: geure barnera jatsi ta orko argiak diñoskunez mundu onetako arazoetan jardun, begiak goian jarriak. Goian bai dogu egizko argia ta osasuna.

Ba-dau argirik, ba-dau armasik Dante'ren lanak. Illunpetan egoan oindio Erdi-aroa, baiña laster agertuko zan pizkundearren erraindu diztikorra zan lan ori. Gizona argi ta garbi, illun-miesa etenik, oso nabarmen agiri yaku olerkariaren asmakizunetan. Zazpireun urte dira a jaio ta bizi zala: alan be, ezta il ez lausotu arek egiña: orduan ta gaur bardin dirau. Ezta arritzekoa, beraz, aren jaiotzetiko zazpireungarren urtea ospetsu egin nai izatea. Ez nai izan bakarrik, baita egin be Italia'n bereziki.

Eta guk euskaldunok? Ez ete daukagu zer-ikusirk humanista andi orregaz? Naparroa aitaten da berak bere *Su-leza*'ko XXII'garren kantuaren. Gero, 1307'tik 1310'ra bitartean, Kompostela'rak joan ei zan erromes. Euskalerritik ez ete zan ibillu arako osteran? Dana dala, Bilbao'n ba-dau, esker onez edo, a goratzeko baxkune bat sortuta. Nik, barri, aurtengo aren goratzarrean neure aletxoza ezarri naita, SU-LEZA euskeraturik daukat ba-leiteke aurten berton argitara emotea.

## e-gizonak

BARRIA'TAR JUAN ANJEL

tilde-eragileek izango zitun, noski. Ge-de zan gure Unamuno. Ta orain dator izen emango diot nik? Gure arteko draskoak ere tartean dabilzku, aren xeberrekeriak edo zernazkeriak agoan astiñaldiz ematen digute, beste gabe. ala, eztabaidan edo elkarriketan jar-en uste duzunen, plaustral, Unamuno' botatzen dizute arpegira ta akabol-en edo gure jardunaren aria etenda oegi ta txukunegi egiten joian unean. Unamuno maitet Nik neuk, txalo nere adimen-antzoki bakartian. Arriaskotan zure zorroztasun ta jatorria, zure esan bat, aldiako zertzeladak itsu-itsuan ihun sartzeako bekokirik Zure benetako ezagutzaille ta maitazteagatik, libra gaitzaz kaletarren eri" guztengandik.



Eraria epela dagola?

FAGOR'ek oztuko du berela

ARANZADITAR J. M.

Era guzietako seguroak

Barcelonako

«LA CATALANA»

Seguroetako ordezkaria

Gipuzkoan

S. Marcial, 33 entlo.

Urrut zkiña 19226

DONOSTIA